

MIKEL ZARATE, ABADEA
1979-04-10ean +

Gure Mikel, Mikel Zarate, gizona, **abadea**, irakaslea eta idazlea izan dogu. Gogoeta honetan haren abade izatea izango dot aztergai.

1. Oinarrizko izaera eta abadetza

Edozeinen modura Mikelek ere *oinarrian izaera* dauka, berezkoa eta aurretikoengandik jasoa, giza izaera. Eta giza izaera hori busti, moldatu, janaritu, aberastu eta egituratu egin da urteen joanean.

Oinarrizko izaeran hazurmamindu da haren *abadetza* ere. Baina Mikelengan abadetza ez da izan gainean jartzen dan jaka edo azaleko soinekoa, ezta eraginik gabeko berniz gauzeztan hutsa. Izaeraren bihotzean kokatu da sakon, eraginkor, esanguratsu eta eraldatzaile.

Abade izatea ez da izan edozer gauza harentzat. Prestaketa aldian, seminarioan, eta abade jardunean zehar oso-osoan hartuko dau Mikelen pentsaera, jokaera eta bizitza. Abade izatea *opzinoa* da, sakon-sakoneko aukera, buru-bihotzak eta bizimodua aldatuko deutzazana.

Egunak joan eta egunak etorri, Jainkoagazko eta gizon-emakumeakazko hartuemonetan erdigune, ardatz, zentzunturri bihurtu dau abadetza.

Holan, aukera askoren artean *oinarrizko eta funtsezko aukera* egiten dau, eta ez umetan eta ezjakinean, gaztetan eta gauzak kontutan hartu eta neurtu ondoren baino.

Aukera honek *berkokatu eta eraldatu egingo ditu pentsamolde, hartu-emon eta eginbide* eta asmoak.

Behinola *Nazaretoko Jesusek esandako berbak* jatortaz gogorra: “Jarraitu niri” (Mt 9,9), eta “nire ondorik etorri gura dauanak, uko egin begio bere buruari, egunero kurutzea hartu eta jarraitu beist. Izan ere, bere bizia gorde gura dauanak, galdu egingo dau; bere bizia Nigaitik galtzen dauanak, ostera, eskuratu egingo dau. Zertarako dau gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau?” (Mt 16,24-26).

Loiolako Ignazioarengan eta beste askorengan *berebiziko zirrara* eragin eben berbok, eta euroatik aparteko gogoetak sartu dira zorrotz eta zartada indartsuz Mikel gazte bulartsuaren izatea astinduz.

Balore nagusiak, altxorrak, beste baloreak lekutzen eta euren neurrietan kokatzen dituan eran, abadetzarako barruko deiak berkokatu egin ditu Mikelengan *familia, ikasketak, adiskide eta maitasun hartu-emonak* bere. Familia giroa itzi eta Seminaria joango da Mikel; etxegintzan diharduan aitari laguntzeko ikasketa eta prestakuntza alde batera itzi eta abadetzarako ikasketak hasiko ditu; aspaldiko adiskideak eta, adiskide min dauan emaztegaia ere itzi egiten ditu. Ez da, bada, moko trukekoa Mikelen bizitzan gertatu dan norabide aldateta.

2. Seminarioan

Hogei urteko mutil gaztea da Mikel seminaria sartzean. Bere ikaskideak baino zaharragoa da, heldutasun gehiagokoa. Gogoan dot oraindik txikiagoen ikasgelan “bedel” zaintzaile zaneke irudia.

Heziketa bide ondo arautua izango dau abadetzarako pres-taketa luzean: humanidade ikasketak, filosofiakoak eta teolo-giakoak bihurtzen jakoz bizibide barrirako lagungarri. Mikelen ezagutza mundua geroago eta gehiago zabalduz eta aberastuz doa. Literaturak, antropologiak, gogoetak, giza izatearen azter-ketak, Bibliako Jainkoaren Hitza sakon aztertzeak, kristau fe-dearen egia nagusien ulermen eta sustrai bilaketak..., buruan argitasuna eta hausnarketan sendotasuna bideratzen deuteso.

Baina heziketa ez da **bururakoa** huts-hutsean; giza hezike-tak **bihotza** ere hartu behar dau. Holan, urteak aurrera joan ahala sendotuz doa oinarrizko aukera ha, Jaunagandik hartu dauan deiari emon deutson baietza. Otoitz-bizitza, Jainkoa-gazko esperientzia, fededunen eredia, ebanjelioaren eragi-na, eleiz-alkartearen ibilbidea... bitarteko aberats dira Mikelen opzinoa sendotzeko, indarbarritzeko, bihotza bero-tzeko, heziketa zabala, orokorragoa eskuratzeko. Ezagutu izan dogunontzat “bihotzandi hutsa” zan Mikelengan gun-gekoa zan bihotza lantzeko ibilbide hori.

3. Herriagazko lotura ez dau galtzen

Nahiz eta urterik gehiena barruan egiten genduan, semina-rioan ez genduan galtzen herriagazko loturea, eta barruan ere ezagunak ziran eta izaten eben **eragina herriaren poz eta itxa-ropenak, asmo eta ametsak, negar eta saminak, gurariak**, lorpe-nak eta erasoak.

Baziran seminarioan aldi hartan “**akademiak**” deitzen ziran azterketa eta lan-taldeak: industria munduan lan egiten ebe-nen arduraz bizi ziranak (JOC, HOAC: Jesus langilea), base-riko langileen arazoetaz kezkatuak (JARC: Jesus baserritarra), ikasketa munduko gorabeheretan murgilduta egozanak (JEC: Jesus ikaslea), e.a.

Entzule arretatsu eta ikusle zorrotz eta erne zan Mikelek, **iturburu aberatsa** eukan herriaren nahiak eta ezinak, kezka eta

ardurak, neke eta saminak, lorpen eta asmoak...bere barruan egosteko. Izan bere, herri honetan sortua izanak herri honi eskeini gura eutsan abade zerbitzua.

4. Abade egin ondoren izan ebazan izendapenak (nombramentuak)

64-07-19an Gerenako parroko eta Mallabiako zerbitzari. (irakasle Markinan).

66-08-2an Seminario Txikian hezitzaile, “Retorikoetan” Gogo-Zuzendari, 15-17 urteko gaztetxoekin. Hortik aurrera baita euskera irakasle ere.

69-10-3an Loiuko Parrokiako laguntzaile Lauroetan. Seminariotik.

5. Abade edegia eta jasanbera

Une eta gertaera latzetan bizi izan eban umearoa Mikelek, gerra ostean aita kartzelan ebala. Eta abade lana burutzean ere sarri “herri nahi eta ezinaren” garratza eta larria sufridu izan eban. Hortik, saminaren ziztadak jasan zituan bere izakera bizi baina sentiberean. Halan bere, samin artean bere, saminaren itsuak nekez menperatuko eban haren bihotz zabala.

“Bihotzandi ibiltaria” zan Mikel, haren adiskideok geure artean esaten genduanez, eta ez zan gauza inorekin hasarrean luzaro irauteko, nahiz eta beroaldian eta abornadan purrustada batzuk jaurti.

Jokabide ezbardinen aurrean ulermen eta eroapen handikoa zan gure Mikel. Goitik beherako agintarikeriaz bide bakarra ezarri nahi ebenak min emoten eutsoen Mikeli. Bere izatearekin hobeto buztartzen zan harako Gontzal Mendibilek kantatzen eban errepika leloa: “Herria maitatzeko era asko dago”.

Beharrezkotzat jotzen ebazan herrigintzan eta eleizagintzan askotariko molde eta bideak. Ez jataz sekula ahaztuko berak

behin baino gehiagotan esan eustazan berbak: **“Gure herriak danetariko burrukalariak eta era guztitako gudariak behar jokak, Lontzo**. Mutur-joka alkar bazterten eta gaitzesten ibiltzeak ez jauskuk frutu handirik ekarriko. Bajaukaguk indarrak zertan erabili, alkarregaz mokoka ibili beharrea”.

Mesedegarria zan, benetan, jarrera hau bai **euskeran zein politikan** hain bizi eta estu, gatazka larrian, bizi ginanean, ertzik ertzenetara jo eta han, gauza bera pentsatzen eta jokabide berbera ebenen artean babesteko tentaldia liluragarri azaltzen zanean.

Amore emotea, tolerantzia, eroapena... emonkorrago dira agintarikeria eta suminetan erretzea baino gure Mikelentzat. Honetan bere, Mikelen gizontasuna eta abadetasuna gorputz bat eginda egozan. Nik bertso batzutan asapalditxo esan nebenez, “batasun sortzaile” izatea eban amets, sokatiraka antzuetan jausi barik.

6. Erlijino arloko lanetan (eleiz liburuak)

Abadegai zala hasi zan erlijino gaiak eta euskera buztartzen. Oraindik filosofia ikasle zala, 1960. urtean argitaratu eban **“Gure Meza Deuna”**, Pío Parsch-en “Sigamos la Santa Misa” liburuaren itzulpena. Euskeratu eta euskaldundu egin eban. Horregaitik esan eutsan D. Pedro Artabe, Lezamako Parrokoak: “Gaztelaniazkoa baino hobeto ulertzen joat, Mikel”.

Gerotxoago, Gerenan abade zala, “Geriako ama euskera eder eta kutunaren altzotik, biotz-biotzez, nire anai euskaldun guztioi” –Mikel beraren hitzetan-- eskeini euskun **“Gure Salbazino Egintza. Alkartasun Zarra”** (Bilbao 1967).

Derioko Seminarioan irakasle zala **“Meza-Liburu Txikia”**. Hau ere itzulpena zan.

Ostean, **“Mezaren egunerokoa”** euskeratu eban, Lino Akesologaz eta Karmelo Etxenagusiaz.

“*Mezaren egunerokoa*” (barria) euskeratzen ere partaide izan zan. Eta harrezkero, Eleizbarruti arteko Liturgia Batzordeko baliabideen eratzailleen arteko izan genduan. Eta, Batzorde horren barruan, “olerkariena” eritxon beste batzorde txikiago bat egin zan, Mikel ere tarteko zala, J.M. Lekuona, B. Gandiaga... eta gainontzekoekin. Meza barruko Salmo-Kantak, Gorazarreak eta Eleiz-Kanta barriak sortzeko eta egokitzeko antolatu zan taldetxo hori.

Liturgiaren inguruko lanokin batera, *hainbeste itzulpen ge-biagotan* ere parte hartu eban, esate baterako gotzainen agiriak eta berbaldiak., euskeratzen, On Jose Maria Zirarda eta On Antonio Añoveros Bilbao eleizbarrutiko gotzain izan ziran bitartean.

Ezin itzi daikeguz ahaztuta *Eleiz-Kanta barriak* ere. Nork ez dau ezagutzen “Eskerrik asko, Jauna” edo Mikel beraren heriotz egunean estreinatu zan “Piztu zaigu gure Jauna”? Gure parroketan oso ezagunak doguz gaur ere beste kanta batzuk: “Goazen alkarturik”, “Gure ondoan, Jauna”, “Gure biderakusle, Jauna, izan zaitez”, “Alkartuta goazen...” e.a. gure Mikele-nak dira danak.

7. Eleiz-hizlaria

Sermoiginen argia, *bizia, hurkoa eta entzuleagana heltzekoa* zan, gehienetan. Fedea entzutetik badator, –“fides ex auditu”–, batek badaki zenbategana heldu zan Mikelen ahotsetik. Barruan eukana eta eroiana zabaltzeko baeban dohaia. *Ipuinez, herri esaeraz, bertsoz, irudiz baliatuz*, baekian entzuleagana sartzen, haren bihotzari zirkin eragiten.

Jai zalea zan Mikel, eta jaizaletasun horrek berariazko indarra emoten eutsan eleiz-jai eta liturgi ospakizunetan. Benetan arduratzen zan Ebanjelioaren mezua esanguratsua izan eiten, eleizkizunak bizitasunez, *euskal senez, alaitasun eta freskotasu-*

nez, gaurkotasunez horniduz, nahiz eta beti ez lortu berak amestutako helburua.

Ospakizunetan beti bilatzen eban *familia giroa sortzea eta jai giro alai* bultzatzea. Euskal arnasazko baliabideak erabil-tzean, ez eban bilatzen nobedade hutsa edo moda deigarria (bertsoak kantatzen ere ez zan hasi nik kantau egiten nebaza-la jakin arte; artean, esan egiten zituan). *Euskal senez eta jai itxuraz* jantzi eta igurtzi gura izaten eban eleizkizuna. Errutina-ren azal motela eta errepikapenaren oskol astuna alboratu gu-rra ebazan, **ospakizun hurkoago, gazteago, alaiago, freskoago, biziago eta geureagoa** burutuz.

8. Abegi oneko abadea

Abegi onekoa, zabala, *ulerbera eta harrera samurrekoa* ere bagenduan Mikel gizona eta abadea. Edozeinek jo eikean be-rarengana, aberats zein ezeuki, jakitun nahiz ezjakin, uriko nahiz baserritar, eukitsu nahiz eskeko, zahar zein gazte, gizon zein emakume, unibertsitario zein langile, dotore zein arlote... Bere burua apur bat alborantza makurtuz –hori ohitorea eu-kan– arreta guztia eskeiniko eban bihotz zabalez eta ulermen handiko eroapenez.

Egia da *lezamarra* zana, eta lezamarrak apur bat harroputz entzutea daukiena. Baina Mikelek baeukan ondo bereganatua makaltasun esperientzia, bai bere bizitzan zehar bai eta berak begi luzez eta zorrotzez aztertzen eban gizartean.

Mikeli ere ondo letorkioke harako esaldi sakon eta adieraz-garria, gure herrian aparteko esangurea dauana: “Eusko lur gainean zutunik, Jainkoaren aurrean apalik”. Hemen tente eta paparra erakutsiz ibili arren, sarri somatu dau *bere txikitasun eta makaltasuna –behin baino gehiagotan izaten ebazan behe-rakadak–*. Baina pozik eta esker onez espermentatu dau Jau-naren erruki handi eta baldintza gabea, Haren damurik gabe-ko guganako maitasuna. Harrezkero, Jaunaren aurpegi eta

irudi errukitsu eta maitalea bizi eta iragarriko dau, eta ez epaile gogor, urruneko eta zigortzailearena. Gaurko teologian eleiza zerbitzaria bultzatu nahi da, eleiza “samariarra”, preminan dagoan edonorengana zauriak osatzera ama-bihotzez hurreratzten dana. Eleiza honetako partaide eta ekintzaile izan gurako leuke Mikelek, azkenean “***maitasuna bakarrik dalako sinesgarria***”.

9. Kontzilio osteko abadea

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoak (1962-65) ilusinoa, eleizan bide barriak urratzeko gogoia, munduagazko hartu-emon hobeia, gizon-emakumeakazko zerbitzua...ekarri eusku-zan. Aita Santu Joan XXIII.aren “aggiornamento” zalakoak, arnas barriz eta bultzada zirkintzailez astindu ginduzan, eleizaren “eguneratzea” hazurmamintzeko saka eginez.

San Joanez dinosku “Jainkoak bere Semea emoteraino maitate izan dauala mundua”. Biblian zehar eten barik azaltzen jaku gizon-emakumeonganako Jainkoaren maitasun damurik bagakoa. Deuteronomio liburutik eta Lukasen ebanjeliora arte, bada Biblian zehar samurtasun eta errukizko etenbako hari iraunkorra, Jaunaren giza aldekotasuna tinko adierazten dauana.

Jainko maitasunaren frutu gara: maitasun horrek sortu eta izateratzen gaitu. Gure zeregina, harrezkero, ***Jainkoa maitatzea*** da. Eta hori ***lotura ezin hautsiz anai-arrebenganako maitasunari lotua*** dago. Holan, lagun hurkoaganako maitasuna, batez bere laguntzarik gabeen, behartsuen, umezurtzen, alargunen, kanpotarren eta erbesteratuen ardura bihurtzen da erdigune kristau jokabidean. Gogoan izan beharko geunkez harako azken auziko berbak: “Bene-benetan dinotsuet: nire senide txiki honeetariko bati egin zeuntsoena Neuri egin zeunsten” (Mt 25,40).

Bibliako eta Kontzilioko mezuaren haritik, gizon-emakumeen garapenerako lagungarri dan fedea eta kristau mezua zabaldu gura dau Mikelek, *gizabidez betea eta gizatzailea dan mezua*, eta hortxe kokatu gura dau bere abade zerbitzua, benetan esanguratsua eta onuragarria izan daiten gaurko munduarentzat.

Lontzo Zugazaga

+ Mikel Zarateren omenez,
beraren heriotzetiko 40. urteurrenean